

## LAUDIOKO UDALA

### 2016 urteko jaietako ekintzak diru-laguntzak

2016ko ekainaren 24 egunean Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiz onartu da 2016 urterako jaietako ekintzak diru-laguntzetarako deialdiak egitea, 48.070,00 euro zenbatekoz 0600 3381 48014 partidara eta 33.445,00 euro zenbatekoz 0600 3381 48119 partidara, 2016 urteko aurrekontuan.

#### 2016 urteko jaietako ekintza eta jardueran antolatzeke diru-laguntza deialdia

1. Objektua.
2. Aurrekontuko zuzkidura.
3. Onuradunak.
4. Onuradunen betebeharrak.
5. Eskaerak eta dokumentazioa.
6. Epea.
7. Balorazio irizpideak.
8. Diru-laguntzen zenbatekoa eta kalkulua.
9. Azterketa, ebazpena eta eskumena duten organoak.
10. Jakinarazpena eta ordaintzeko era.
11. Diru-laguntzaren ordainketaren gaineko bermeak.
12. Diru-laguntzaren muga.
13. Bateriaezintasunak.
14. Kontrol bermeak.
15. Ebazpena aldatzea edo moldatzea.
16. Diru-laguntzen kitapena. Betebeharrak.
17. Diru-laguntza galtzea.
18. Partzialki bueltatu beharra eta bete gabetzeen graduazio irizpideak.
19. Zehapenak.
20. Garapena, interpretazioa eta difusioa.

#### LEHENA.- Objektua

Oinarri hauen helburua da arautzea Audio Udalak, bere Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloaren bitartez, emango dituen diru-laguntzetara sarbidea eta iristeko aukera izatea lehia librearen araubidean. Laguntza horiek xederatuko dira finantzatzeko 2016 urtean zehar Audioko auzoetan jaietako programak eta aktibitateak antolatzeke, garatzeko eta egikaritzeko.

Diruz lagundu ahal diren gastuak izan dira, inolako zalantza barik, oinarri hauen arabera diruz lagundutako ekintza eta jardueraren izaerari erantzuten diotenak.

Jai izaerako jarduera ekintza hauek elkarrekin, era batera, finantzatzeko laguntzak emango dira diru-laguntza kontzeptuan eta horiek, betiere, era estuan lotuta egongo dira Arabako Lurralde Historikoan Diru-laguntza eta Transferentziei buruzko, otsailaren 7ko, 3/1997 Foru Araua, azaroaren 17ko 2003/83 Diru-laguntzen Lege Orokorra eta Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia eta aplikagarria dakioken legeri osagarriarekin bat.

#### BIGARRENA.- Aurrekontuan zuzkidura izatea

Deialdi honen bitartez emandako diru-laguntzen laguntzen kopuru osoak ezin izango du inoiz, eta sekula ere, gainditu aurreikusitako 81.515,00 euroko zenbatekoa.

Zenbateko hori banatuko da ondoko jardueren multzo edota atal hauen arabera:

1.- Santa Luziako erromeria: 5.175 euro.

Udalak bere kargu hartuko ditu bi musika emanaldi eta bi haurrentzako emanaldiren kontratazioak sortutako gastuak, hala nola jaietako esparrura iristeko garraio publiko zerbitzuaren kontratazioarena ere.

2.- Haurren danborrada: 1.495 euro Udalak bere gain hartuko ditu zirkuituan soinu instalazioa egiteko megafonia zerbitzuaren kontratazioak sortutako gastuak.

3.- San Joan Astobitzako erromeria: 6.900 euro.

4.- San Pedropeko jaiak: 6.900 euro.

5.- Areta auzoko jaiak: 6.900 euro.

6.- Ugarte auzoko jaiak: 6.900 euro.

7.- San Bartolome auzoko jaiak: 6.900 euro.

8.- Latorro auzoko jaiak: 6.900 euro.

9.- Zaindari jaietako ekitaldien antolamendua: 33.445 euro.

Jaietako egitarau guztietan, diru-laguntza emateaz gainera, Udalak eskurako baliabide teknikoak lagako ditu eta ekitaldietarako elektrindar horniduraren kontratazioa egingo du, beti eta hori nahitaezkoa eta ezinbestekoa baderitzo. Era berean, komenigarri deritzon kasuetan, Udalak jaietako esparrua edo barrutia estaltzeko karpa bat jarriko du.

Multzo edo atalen arteko baten bat hutsik geratuko balitz, diru-kopuru hori pasatuko litzateke Udalaren gastu arruntaren diru sailera, eta Udalak, bere aldetik, dagozkion jaiak antolatu ahalko ditu, ala antolatu ez.

Gastua egotziko zaie Laudio Udaleko 2016ko Aurrekontu ondoko diru sail hauei eta horien kargutan:

48.070,00 euro, 0600 3381 48014 “Beste jaietako diru-laguntza batzuk” partidara.

33.445,00 euro, 0600 3381 48119 “San Roke jaietako diru-laguntzak” partidara.

Oinarri hauen objektu diren diru-laguntzak ematea, kreditu egokia eta nahikoa izatearen etendurazko baldintzaren mende egongo da eta 2016ko maiatzaren 30 eguneko Udalbatzarrak Osoko bilkuran onartutako 2016ko Laudioko Udalaren Aurrekontua behin betiko onartzearen mende.

#### HIRUGARRENA.- Onuraduna

Onuradunaren izaera edukiko du, jarduera sustatzen edo egiten duen banakako subjektu edo elkarte orok.

Onuraduna pertsona juridikoa denean, bere kontura eta izenean diru-laguntzaren emakida funtsatzen duten ekintza guztiak edo zati bat gauzatzeko konpromisoa hartzen duten onuradunaren kide bazkideek ere, halaber, onuradunen izera izango dute.

Taldeak edo elkarteak pertsona fisikoak edo juridikoak direnean, berariaz jasota adierazi beharko dute, hala eskaeran nola emakidaren ebazpenean, elkarteko kide bakoitzak bere gain hartu dituen eta gauzatuko dituen konpromisoak adierazita, hala nola horietako bakoitzagatik aplikatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa, zeintzuek edukiko duten, baita ere, onuradun izaera. Hori bada kasua, izendatu beharko dute pertsona bat elkarteko ordezkari bat edo ahalorde bakarra, elkarteari onuradun lege dagozkion betebeharrak bete ahal izateko ahalmen nahikoekin. Elkarte ezin izango da inola ezta ere desegin azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio epea igarota eta pasatuta egon arte.

Laguntza hauek jasotzeko aukera eduki ahal dute irabazi-asmorik gabe eratutako kultura eta jaietako elkarteak eta erakundeak. Xede horrekin, eskatzaileak, elkarteak edo lege eratutako batzordeak eduki beharko du bere gizarte egoitzaren helbide soziala Laudion eta udalerrri honen barrutian gauzatuko dute euren jarduna eta aktibitatea. Gainera, bete beharko dituzte hurrengo baldintza eta betekizun hauek.

-Legez eraturata egotea eta inskribaturata Eusko Jaurlaritzako Elkarte eta Erakundeen Erregistroan.

-Laudio Udaleko Elkartearen Erregistroan inskribaturata egotea.

-Beraien programak eta aurrekontuak botere publikoaren kontrolaren mende jartzea.

-Beraien gobernu organoen osaketan eta funtzioamenduan barne demokrazia izatea bermatzea.

Halaber, laguntza horien onuradun izan ahal dira ere, gure udalerrian erroldaturako pertsona fisikoak, hala nola nortasun juridikoa duten udalerriko elkarteak eta taldeak.

Diru-laguntzen Lege Orokorren (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 13. artikuluan zehazten diren egoerak betetzen ez dituen pertsonak edo elkarteak ezin izango du onuradun izaera eduki.

LAUGARRENA.- Erakunde onuradunen betebeharrak

Onuradunen betebeharrak hurrengo hauek dira:

a) Diru-laguntza funtsatu duen objektua, proiektua edo ekimena gauzatzea, burutzea eta betetzea.

b) Justifikatzea Laudio Udalaren aurrean baldintzak eta betebeharrak bete egin dituela, hala nola diru-laguntzaren emakida edo luperketa zehaztu duen ekintza eta jarduerara egin eta gauzatu dela eta helburua bete egin dela.

c) Laudioko Udalak edo eskumena duen egiaztatzerako edo finantza kontrolerako edozein elkartek eskatzen duenean, egiaztatze jarduerak betetzeko prestutasuna izatea. Eskumena duten organoak nazionalak edo Europako Batasunekoak izan daitezke, eta aurrez aipaturako jarduerak egin ahal izateko behar den informazioa eman beharko zaie.

d) Diruz lagundutako jardueretarako bestelako diru laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu direla ahal denik eta azkarren jakinarazi beharko zaio Laudioko Udalari.

e) Egiaztatu ahal izatea ebazpen proposamena hartu aurretik tributu eta zerga arloan eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak beteta eta egunean dituela, hala nola zuzenbide publikoko gainerako zorren eta bueltatu beharreko gaiengatik.

f) Kontu liburuak eskura, erregistroak beteta eta bestelako dokumentazioa behar den moduan auditaturata izatea. Merkataritza-legeriak esaten duenarekin eta diru-laguntza jasoko duen onuradunaren sektore-hitzarmenarekin bat egon beharko da dokumentazio guztia.

g) Jasotako diru laguntzaren erabilera egiaztatuko duen agiri guztiak izan behar dira, elektronikoak ere bai, egiaztatze eta kontrol jardueretarako erabil daitezkeelako.

h) Publizitate egokia ematea diru-laguntzaren objektu eta xede diren programen, ekimenen, inbertsioen edo edozein motako jardueren finantziazioaren izaera publikokori. Beraz txertatu beharko du testu hau udalaren anagrama edo armarriarekin batera "Babeslea: Laudio Udala" edo "Babeslea: Laudio Udala / Patrocina: Ayuntamiento de Llodio" diru-laguntza jaso duen programaren ondorioko edozein karteletan, argazkitan edo megafoniaz edo beste komunikazio grafikotan. Publizitate horri eskaini behar zaion lekua izan beharko da, gutxienez ere, beste publizitate batzuei eskainitakoa bezainbesteko tamaina eta neurrikoa. Gainera, ahal bada txertatuko da besten tamaina eta neurri berean (beste horiek emandako diru-laguntzak Udalarena baino handiago direnean izan ezik). Halaber, berri emango da finantziazioaren izaera publikoaz propagandaren erabilera egiten bada ikus-entzunezko baliabidez. Gainera, edozein kartel eta publizitatek kontuan hartu beharko du hizkuntzen tratamendu elebidun ofiziala, 2010eko azaroaren 29ko Udal honetako Osoko bilkurak onartutako Euskararen Erabilera Udal Ordenantza Arautzailean erabakita dakarrena. Ordenantza horrek, bere 21. artikuluan adierazita dakar hauxe: "Udalak diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo aisialdi jardueretan derrigorrez haiek iragartzeko erabiltzen den edozein euskarri behintzat euskaraz joan behar du Ahozko propaganda denean ere, euskaraz izan behar du behintzat. Era berean,

udalaren herri jabetzako lurretan aldi baterako jarriko den edozein instalaziok ere goragoko baldintzak bete behar ditu.”

Halaber, Udalaren diru-laguntza duten jardueren publizitatean oso arreta berezia jarriko zaio, hala hizkuntza nola erabilitako irudiak, sexistak ez izateari.

i) Jarduera garatu eta gauzatzeko legeek eskatutako izapidetze guztiak egitea.

j) Laguntza bueltatzeko arrazoiren batean izango balitz, jasotako diru-laguntza osoa itzuli beharko litzateke.

BOSGARRENA.- Eskaerak eta dokumentazioa

Eskaerak aurkeztu beharko dira eskabide inprimaki normalizatuan Herriko Etxeko (beheko solairuan dagoen) Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideko Legean espezifikatutako formetan.

Eskaerarekin batera ondoko dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

1) Eskaera sinatzen duenaren NAN, bere izenean edo elkarte baten ordezkariaren diharduelako. Eskaera egiten duena elkarteko presidente legez azaltzen den figuraz besteko pertsona bat bada, legezko presidentearen ziurtagiri baimentzailea aurkeztu beharko du, eskaera sinatzen duen pertsonari baimena emanaz elkartearen izenean aritzeko.

2) Elkarte eskatzailearen IFZ.

3) Elkarte ez badago inskribatuta edo alta emanda Laudioko Elkartearen Udal Erregistroan, bertan inskribatzeko eskaera, erantsi behar izanik Erakundeko Estatutuen fotokopia, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan legez sortuta, eraruta eta inskribatuta dagoela egiaztatuko duen dokumentua, hala nola IFZ dokumentu egiaztatzailea.

4) Aurreikusitako ekintza eta jardueren egitaraua, barne harturik:

a) jarduera horiek lortu nahi dituzten helburuak.

b) jarduera bakoitzerako aurreikusitako lekua, data eta iraupena

c) Jarduera norentzat zuzenduta dagoen eta zenbat pertsona onuradun hartzaile edukiko duen.

d) Euskararen erabilera.

e) Jardueraren eremua edota esparrua.

f) Jarduerak egiterakoan, azken urtean beste talde eta elkarteekin gauzatu eta garatutako elkarlan eta lankidetzak.

g) Aktibitateak gauzatzeko baliabide humano, tekniko eta materialeak.

h) Elkartearen eratze-data.

5) Diru-laguntza eskatzen diren ekintzak eta jarduerak gauzatzeko diru-sarrera eta gastuen aurrekontu zehaztua. Helburua da diru-laguntzaren kalkuluan soilik hartzea lagungarriak diren gastuak; horiek izango dira, inolako zalantza barik, elkartearen izaerari erantzungo diotenak.

6) Diru-laguntza ordaindu ahal izateko, eskatzailearen banketxe kontu zenbakia.

7) Zinpeko aitortpen hauek:

-Foru Ogasunarekiko tributu eta zerga obligazio fiskalen ordainketan eta Gizarte Segurantzarekiko, hala nola zuzenbide publikoko gainerako zorren eta bueltatu beharreko gaiengatik egunean izateari buruz.

-Diru-laguntzak bueltatzeagatik obligazioen ordainketan egunean izateaz.

-Onuradun izaera lortzeko debekuetan sartuta ez egoteari buruz, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/1993 Lege Orokorreko 13 artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan azaldutakoarekin bat.

Udalak, hala egoki baderitzo, eskatu ahalko du aurkeztea dagozkion ziurtagiriak.

8) Zinpeko adierazpena beste erakunde publiko edo pribatuei egindako diru-laguntza eskaerei buruz diru-laguntza eskatu den programarako. Diru-laguntza jaso dela edo ez dela jaso jakin bezain laster, Laudio Udalari jakinarazi beharko zaio, hala bada kasua, diru-laguntzaren kopurua birdoitzearen ondorioetarako.

Administrazioak bere esku dituen dokumentuak ez dira aurkeztu beharko, beti ere eskatutako prozeduraren amaiera epetik bost urte igaro ez direnean eta dokumentazioa aurkeztu zeneko data eta erakundea zehazten denean, Diru Laguntzen Lege Nagusiaren 23. artikulua zehazten duenari jarraituta. Iraungipen data duten dokumentuak -zergak ordainduta izatea, esaterako- aurreikuspen honetatik kanpo geratzen dira.

#### SEIGARRENA.- Epea

Oinarri hauetan arautzen diren laguntzak lortzeko eskaerak aurkezteko epea ALHAOn deialdia argitaratutako biharamunean egunean hasiko da, eta argitaratze hori denetik hilabetera bukatuko da. Epea lan eguna ez denean bukatzen bada, hurrengo lehen lan egunera arte atzeratuko da.

Aurkeztu den dokumentazioan irregulartasunik edo zerbait falta dela antzeman bada, aurkeztu denetik hamar baliodun eguneko epea eskainiko da hori zuzentzeko.

Behin epea bukatu denean, eta akatsa zuzendu ez bada, artxibatu egingo da eta ez du administrazioarentzat baliorik izango.

#### ZAZPIGARRENA.- Balorazio irizpideak

Laguntzak esleitzeko orduan kontuan hartuko dira ondoko irizpide hauek:

I.- Auzoetako jaietako 1 - 8 arteko multzo, atal edo erloetarako:

a) Balioztatuko da eskatzaileak duen eskarmentua aurkezten den auzoko jaiaren organizazioan (10 puntu antolatu duen urte bakoitzeko, gehienez ere 50 puntura arte)

b) Balioztatuko da organizazioek egin duten ahalegina ekonomia ekarpenak lortzeko; gehiago puntuatu dute Udalak izendatutako diru-laguntza baino nahikoa gastu gutxiagoa duten aurrekontuek.

Eskatutako diru laguntzak islatzen duen proportzioa, ekitaldiko aurrekontu osoarekiko, ehuneko hainbatean adierazita.

Ehuneko 20a: berdin edo gutxiago (40 puntu)

Ehuneko 20,01 eta ehuneko 40 artean (30 puntu).

Ehuneko 40,01 eta ehuneko 60 artean (20 puntu).

Ehuneko 60,01 eta ehuneko 80 artean (10 puntu).

Ehuneko 80,01a eta ehuneko 100a artean (0 puntu).

II.- 9. multzo, atal erlorako, zaindari jaietan ekitaldien organizazioa antolamendua:

a) Balioztatuko da organizazioek egin duten ahalegina ekonomia ekarpenak lortzeko; gehiago puntuatu dute Udalak izendatutako diru-laguntza baino nahikoa gastu gutxiagoa duten aurrekontuek.

Eskatutako diru laguntzak islatzen duen proportzioa, ekitaldiko aurrekontu osoarekiko, ehuneko hainbatean adierazita.

Ehuneko 20a: berdin edo gutxiago (40 puntu)

Ehuneko 20,01 eta ehuneko 40 artean (30 puntu).

Ehuneko 40,01 eta ehuneko 60 artean (20 puntu).

Ehuneko 60,01 eta ehuneko 80 artean (10 puntu).

Ehuneko 80,01a eta ehuneko 100a artean (0 puntu).

b) Diru-laguntza eskatzen den jai ekitaldia Udalak antolatutako programarekin osagarria izatea eta udalaren interesekoa izatea.

10 puntu emango zaizkie jai ekitaldiei, baldin eta udalak berak antolatzeko zailak suertatzen bazaizkie, zuzenduta dauden publikoaren sektoreagatik, jai ekitaldi motagatik edo beharrezko duten antolamendu motagatik.

c) Elkarrekin erakutsitako ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna eta jai ekitaldiaren tradizioa.

Elkarteak duen ibilbidea, jarraipena eta egonkortasuna ekimenak garatzen dituen arloan balioztatzeke, 4 puntu emango dira aurkeztutakoaren arlo berean ekimenak egiten aritutako urte bakoitzeko, gehienez ere 20 puntura arte.

Jaietako programan ekitaldiak duen tradizioa balioztatuko da puntu 1 emanda jaietako udal programa barruan ekitaldia agertu den urte bakoitzeko, gehienez ere 10 puntura arte.

d) Erakunde sustatzaileak garatu dituen proiektu eta ekimenak ondo joan izana: arrakasta.

5 puntu emango zaizkie azken hiru urteotan aurkeztutako programarekin asebetetzeko eran konplitu izan dituzten ekitaldiei, hala ekonomikoki, nola makatutako helburuekiko; eta horien garapenean ez dadila gertatua izan inolako gorabehera nabarmenik taldeari egotzi ahal zaiona.

e) Euskararen erabilera sustatzea.

15 puntu emango dira osorik euskaraz gauzatuko diren ekitaldietarako eta 10 puntu, euskaraz eta espainolez direnean.

f) Diru-laguntza eskatzen denerako programa bat etortzea udala egikaritzen ari den berdintasunerako, gazteriako edo adikzioen prebentziorako plan estrategikoekin.

Plan horietako bakoitzaren arduradunak edota arduradunek egingo dute aurkeztu diren eskaeren analisia, garatzen ari den plan estrategikoarekin inolako harreman motarik ez duten programei 0 puntuko puntuazioa emanik; 20 puntu, harreman partziala dutenean eta, 40 puntu, proposamena erabat txertatuta dagoenean planean.

**ZORTZIGARRENA.- Diru-laguntzen zenbatekoa eta horien kalkulua**

1.- Diru-laguntzen zenbatekoa.

a) Jarduera batentzat gehieneko diru-laguntzak, ezin gaindi dezake jarduera horren defizita ez eta eskatutako zenbatekoa ere.

b) Martxoaren 25eko 44/2014 Dekretua betearazi behar dela iritzita. Bertan araututa dakar ekitaldi publikoak egiteko nahitaez eskatu beharreko erantzukizun zibileko aseguruak, hau da, ekitaldi antolatzaile orok erantzukizun zibileko aseguru kontratatu beharra duen. Eskatzaile orori bermatuko zaion diru-laguntza berdina izango da aseguru horiek kostua ordaintzeko, gutxienez ere, aipatu den dekretuan eskatutako betebeharrekin betetzeko adinako aseguru kostuarekiko; puntu honetako a) atala bete baldin bada.

c) Behin aurkeztutako eskaera bakoitzari esleituta erantzukizun zibileko aseguru gastuari dagokiona, oinarriotako zazpigarren puntuko balorazio irizpideak aplikatuko dira. Lortutako puntuazioan oinarrituta egingo da eragiketa, eskaera bakoitzari dagokion gainerako diru-laguntza hondarra kalkulatzeko.

d) 1-8 bitarteko multzo, diru-laguntza bakarra emango da jai ezberdin horietako bakoitzaren organizaziorako, eskatzaileak berak aukeratu ahal izanik jai ezberdin horien organizazioari ekitea eta gauzatzea.

e) 9. multzoan, diru-laguntzen kalkularen eragiketa bananduta egiteko, jardungo da hurrengo era honetan: multzo bakoitzari xederatutako guztirako zenbatekoa proportzioz banatuko da, aurkeztutako jarduera guztien artean, gehienez ere jarduerak izan duen defizitaren zenbateko berdinean.

f) Joan-etorri gastuak kontabilizatuko dira gehienez kilometroko 0,29 euro kostuaz. Ez da onartuko erosketak egiteko joan-etorririk, horiek Laudion egin ahal badira.

**BEDERATZIGARRENA.- Azterketa, erabakia eta eskumena duten organoak**

Jai ezberdinak antolatzeko programetarako aurkeztutako eskaera guztiak, beti eta oinarri hauetan exijitutako ezinbesteko betebeharrak eta helburua betetzen badituzte, era bateratuan aztertuko dira Kultura, Kirol eta Jaietako Arloan.

Aurkeztu den dokumentazioan irregulartasunik edo zerbait falta dela antzeman bada, hori zuzentzeko eskainiko da hamar baliodun eguneko epea, aginduzko deia jaso izan denetik hasita. Halaber, hamar baliodun eguneko epea ere eskura izango da, prozeduran zehar, Audio

Udalak eska dezakeen dokumentazio edo txosten osagarriak aurkeztu ahal izateko. Bi kasuetan, epea amaituta, ez bada eskaera zuzendua izan edo eskatutako dokumentazioa entregatua izan, artxibatu egingo da eta administrazio balio gabe geratuko da.

Aurrez azaldutakoa eta deialdi honetako zazpigarren oinarria kontuan izanda, urte osoko kirol programen inguruko dokumentua prestatuko da. Dagozkion balorazio irizpideak eta zortzigarren oinarriko irizpideak kontuan hartuta egingo da, eta Kultura Saileko teknikariek egingo dute. Balorazio horiek bidaliko zaizkio Balorazio Epaimahai bati. Hori osatutako dute Kultura, Kirolak eta Euskarako Osoko Gaietako Informazio Batzordeko kideek.

Balorazio Organoaren txostena eta espedientea aztertuta, Kultura, Kirolak eta Jaiak Arloko zinegotzi ordezkariak ebazpen edo erabaki proposamena formulatuko dio Tokiko Gobernu Batzarrari. Horrek bere baitan eduki behar du hau:

-Diru laguntza lortu ahal izateko zenbatek egin duten eskera.

-Diru laguntzaren zenbateko zehatza eta ekintza.

-Diru laguntza emateko zein arrazoi izan diren eta jarraitu diren irizpideak.

**HAMARGARRENA.-** Jakinarazpena eta ordaintzeko era

Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko ebazpena onartu ostean, eskatzaile guztiei bidaliko zaie horren jakinarazpena. Ebazpena, arrazoituko da eta, edozein kasutan, hartuko den ebazpenaren oinarriak eta funtsak egiaztatuta geratu beharko dira. Erabakia arrazoitu egingo da, eta, bestela ere, erabakia hartzeko jarraitu diren irizpideak zehaztu beharko dira. Kasua bada, erabakia diru-laguntza ematearen aldekoa dela, ebazpenean jasoarazi egingo dira laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko era, diru-laguntza ematen deneko baldintzak eta hori onartzeko eta diru-laguntza justifikatzeko epe-muga agertu beharko dira, zein izango baita, gehienez ere, jarduera amaitu den momenturik hilabetera, ezin izanik gainditu, edozein kasutan ere, 2017 urteko urtarrilaren 1 eguna.

Diru laguntza horiek ordaintzeko era hauxe izango da: kopuruaren ehuneko 100a eman beharko da, behin-betiko erabakia hartuta dagoela.

Erabakia hartu eta jakinarazpena emateko gehieneko epea sei hilabetekoa da. Epea hasiko da zenbatzen dagokion deialdia argitaratuta azaltzen denetik, Balorazio Batzordeak berak horren eragin eta ondorioak beste atzeragoko eta beranduagoko egun batera atzeratu egin ez baditu.

Diru-laguntza emakidaren ebazpenak administrazio bideari amaiera emango dio.

Gehieneko epea gainditu ostean, ebazpen zilegia ez bazaie interesdunei jakinarazi, diru-laguntza emateko eskaera ez onartutzat joko da, administrazioaren isiltasunagatik.

Udalak beretzat gordetzen du aurkeztutako proiektu guztiei diru-laguntzak ez emateko eskubidea, ez guztirako zenbatekoan, ez eta zenbateko partzialean ere, edo, hala bada kasua, deialdia hutsik aitortzeko ere.

Deialdi honen eta honen bitartez eratorritako jardueren kontra egiteko aukera dago. Administrazio Publikoen eta Prozedura Komunuen Erregimen Juridikoaren Legeak (azaroaren 26ko 30/1992 legea) eta hori moldatu duen 4/1999 Legeak esaten dutenari jarraituta.

**HAMAİKAGARRENA.-** Konturako diru-laguntza ordaintzearen bermea

Baieztatze organoak proposatuta, Laudio Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, aurreztik diru-laguntzaren ehuneko 100aren ordainketa egiterakoan, arautuko du diru-laguntza horiek emateko erabakian, kasuan kasuko onuradunei eskatu beharreko gaudimenak eta bermeak. Horiek ezin izango dira izan diru-laguntza zenbatekoaren ehuneko 50etik gorakoak. Eskatuko diren garantiak, bermeak eta gaudimenak eratu ahal izango dira efektiboz (metalikoan edo eskudirutan, banku-txekez edo taloi balietsiz), abalez, gaudimen aseguru kontratuz edo balore publikoz.

**HAMABIGARRENA.-** Diru-laguntzaren muga

Deialdi honen bidezko diru-laguntza guztien orotarako zenbatekoak, ezingo du inoiz gainditu onuradunak gauzatuko duen ekintza edo jardueraren gastua.

Beste erakunde batzuk jarduerari egindako finantzazio laguntzak behin ezagututa edo bestelako diru sarrerak zeintzuk diren jakinda, emandako diru laguntza berriro azter dezake Balorazio Organoak. Hala, gastu eta diru sarreraren azken likidazioan defizita egon beharko da. Horrek zortzigarren oinarrian zehaztutako portzentajeetan ez du zertan eragin behar.

#### HAMAHIRUGARRENA.- Bateriaezintasunak

Laguntza hauen emakida bateraezina izango da beste edozein diru-laguntza mota lortzearekin; kenduta Laudio Udaleko Arlo honek ala beste batzuek eman ditzaketen beste batzuk, salbu-eta hala era batera erabaki izan denean edo emakida egin aurretik balorazio organoak horren berri izan duenean; hau da, programa berak, bakarrik jaso ahalko du bi diru-laguntza ezberdin Udaletik, berariazko era adierazian Udalak hala baimentzen duenean. Hori bada kasua, eta behin ezagututa beste udal arlo batek emandako zenbatekoa zein den, oinarri hauen bitartez emandako diru-laguntzaren doitzeari ekin ahal zaio, hasiera batean emaniko laguntzaren ehuneko mantentzeko zenbatekoa nahikoan gutxituta.

Beste finantzazio bide batzuk dauden edo ez egindako zinpeko adierazpenean laguntzak zenbatekoak diren, eta, behar izanez gero, oraindik erabakitzeke dauden laguntzarik ote dagoen zehaztu beharko da. Diru laguntza guztien kopurua jarduerarako onartua dagoen aurrekontua baino handiagoa denean, emango den diru laguntza aurrekontua gainditzen den kopuruan murriztuko da.

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da sekula izan halako zenbatekoa ezen, isolatuta edo beste diru-laguntza batzuekin batera, diru-laguntza jaso duen programaren kostua gaindituko duen bestekoa.

#### HAMALAU GARRENA.- Kontrol bermea

Diru-laguntza ematen duen organoak beharrezkoak ikusten dituen administrazio kontrolak eta ikuskaritzak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioko datuak egiazkoak diren edo diru-laguntza jaso ahal izateko jarritako eginbeharrak betetzen dituen egiaztatzeko.

Onuradunak obligazioa du laguntzeko aipatu den ikuskaritza horretan, eskatutako datuak emanda eta, hala behar izanez gero, jarduerak egiten diren lokaletara sarrera erraztuta.

#### HAMABOSGARRENA.- Erabakiaren aldaketa

Diru-laguntza bat eman ostean, pertsona edo onuradun elkarteak berri eman beharko dio Laudio Udalarari gerta daitekeen edozein aldaketa aurkeztutako programarekiko garapenean proposatutako jardueratan, aurrekontuan, etab.-etan. Aldaketak onuradunaren borondatearen kontra egin behar izan badira edo diru-laguntza lortu ahal izateko ezarriak zeuden baldintzak, elementuak edo bestelako inguruabarrak gertatu direlako bakarrik egon daitezke.

Aldaketen berri eman eta gero, Udal Gobernuak -Balorazio Organoaren txostena jaso ostean eta hilabeteko epean diru-laguntzan izandako aldaketaren berri emango dio onuradunari; jakinarazpena idatziz egin beharko da derrigorrean. Diru-laguntzaren kopuru berria eta berau jasotzeko ezarritako baldintza berriak zehaztuko dira bertan. Epe hori igaro ostean Laudio Udalak ez badio erantzunik eman berrikusteko eskaerari, ulertuko da eskaera hori ez dela onartua izan.

#### HAMASEIGARRENA.- Laguntzaren likidazioa. Betebeharrak

Justifikazio kontua aurkeztea da laguntza onuradunaren betebeharrak eta obligaziozko ekintza, eta hor sartu behar dira aitortpena egiten duenaren erantzukizunpean, diru-laguntzaren objektua bete den ala ez egiaztatzea frogatuko duten gastu agiriak eta justifikatzeak. Gainera, jarduerak finantzatuak izan direnean, Laudio Udalaren diru-laguntzaz gain, funts



propioekin edota beste diru-laguntza edo baliabideekin, kreditatu eta egiaztatu beharko da horien zenbatekoa, nondikakoa -jatorria- eta funts horien benetako aplikazioa diru-laguntza jaso duten ekintza eta jardueretara.

Diru-laguntza justifikatzeko,

1) Pertsona edo elkarte onuradunak aurkeztu behar du ondoko dokumentazio hauxe:

1.1. Egindako jardueraren memoria.

1.2. Gastu eta diru-sarreraren likidazio kitapen xehea.

1.3. Faktura, ordain-agiri originalak edo egindako gastua arrazoitzen duten agirien fotokopiak. Merkataritzako trafiko juridikoan edo administrazio eraginkortasuna izan beharko dute aurkeztutako fotokopiatutako agiriei. Fakturak aurkeztu beharko dira numeratuta eta aurkeztutako fakturen zerrendari erantsita.

Diru-laguntzaren ehuneko 10 bat justifikatu ahal izango da bakarrik, alcoholdun edarien gastuen bitartez. Udal honek onartuta daukan Adikzioen Prebentziorako Plan Estrategikoarekin bat, ehuneko hori murriztu eta gutxitzen joango da urtez urte. Faktura horiek onartuak izan ahal daitezzen, jaietako programan iragarritako eta jasotako ekitaldi bati egokitu beharko zaizkio eta horien kontsumoa publikoak eta parte-hartzaileek egindakoa, adinaren murrizketa bakarraz.

1.4. Aurkeztutako fakturak ordaindu egin izanaren egiaztagiriak eta frogak.

1.5. Diru-laguntza eman zenean zehaztu zen helburua bete dela egiaztatzen duen adierazpena.

1.6. Ekintza edo jarduera ezagutzera eman izan deneko kartel, esku-orri, e.a.en ale bat.

1.7. Zinpeko aitortpena: diru-sarrera eta gastuen kitapenean azaltzen diren laguntza horiek izan dela jasotako bakarrak eta diru-laguntza eskaeran azaltzen ziren eta eskatutako beste batzuk ukatuak izan zaizkiola.

1.8. Ekintza eta jarduera gauzatzearen bi argazki.

Justifikaziorako dokumentazioa aurkeztu beharko da hilabete epe barruan, diru-laguntza jaso duen jarduera amaitu denetik hasita edo diru-laguntzaren emakidaren berri jasotzen duen egunetik hasita.

Betebehar hauetariko bat edo batzuk ez betetzeak emaniko diru-laguntza baliorik gabe utz dezake.

**HAMAZAZPIGARRENA.- Diru-laguntza galtzea**

Diru-laguntzen erakunde onuradunek ez balute beteko beherako zehazten diren baldintzen eta betebeharren arteko edozein, diru-laguntza proposatu zuen Balorazio-Organok berak proposatuko dio Kultura, Kirolak eta Jaietako Arloko zinegotzi ordezkariari eta Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrari, erabakitzeke, eta gauzatutako bete gabeteeen larritasunaren arabera, jasotako zenbateko guztia edo zati bat bueltatu beharra, gehi diru-laguntza ordaindu egin zeneko momentutik hasitako berandutza korrituak, Laudio Udalaren konturako transferentzia edo intsuldaketa bitartez.

Hauexek dira ezarritako suposizioak:

-Eskaeran eta aurkeztutako dokumentazioan formulatutako datuak faltsutzeagatik.

-Ez betetzea osorik edo zati batean diru-laguntza ematea funtsatu zuen ekintzaren helburua.

-Ez betetzea egiaztatze edo justifikazio obligazioa edo justifikazioa ez-nahikoa izatea.

-Diru-laguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste laguntza publiko edo pribatuekin batera, onuradunak gauzatu beharreko aktibitatearen kostua gainditzen duenean.

-Ahalik eta azkarren Laudio Udalari beste diru laguntza publiko edo pribaturen bat jaso denaren berri ez ematea. Laudio Udalak likidazioa onartua izan arren, horren berri eman behar da.

-Eta, oro har, Oinarri hauetan zehaztutako eginbeharren bat ez betetzea. Onuradunen betebeharrak edo likidazioetan bete beharreko dokumentazioari dagozkienak izan daitezke.

HAMEZORTZIGARRENA.- Diru-laguntza zatia bueltatu beharra eta ez betetzeak graduatzeko irizpideak

Balorazio Organoak proposatuko du diru-laguntzaren zati bat bueltatzea, ekintza gastuen behin betiko kitapena txikiagoa izan denean aktibitatearen gastuen hasierako aurrekontuaren aldean eta onuradunak alde aurretik ez duenean eskatu hori berrikustea. Itzuli behar dena kalkulatzeko, aurkeztutako likidazioari egokitasun irizpideak ezarriko dizkio Balorazio Organoak.

HEMERETZIGARRENA.- Zehapenak

Balorazio-Organoak, alde aurretik dagokion espedientea zabaldua, bete gabetzeen larritasunaren balorazioa egokia egin ostean, Kultura, Kirolak eta Jaietako zinegotzi ordezkariaren bitartez, Tokiko Gobernu Batzarrari proposatuko dizkio azaroaren 17ko 38/2003 Legeko II. Kapituluaren, IV. Tituluan, jasota datozen hala diruzko nola ez-diruzko zigorrak eta isunak eta nahitaez eta ezinbestean diru-laguntzak bueltatu beharraren obligazioaz aparteak direnak. Dena dela, zigorra ezartzen den guztietan diru laguntza itzuli beharko da beti.

Oinarri hauek exijitutako betebeharrak bete gabetze kasuetan, baina Diru-laguntzen Lege Orokorrean edo horren Ordenantza Arautzailean arautu gabekoetan, emandako diru-laguntzari ehuneko 5a gutxituko zaio, bueltatzeko, bete gabe utzitako betebeharrak bakoitzeko.

Jasotako diru-zenbatekoak, gehi berandutza korrituak, bueltatu beharraren ordezkariak izango dira, elkarte onuradunen administratzaileak edo legezko ordezkariak.

HOGEGARRENA.- Garapena, interpretazioa eta difusioa

Deialdi honen garapena egin ahal izateko, hartutako erabakien berri emango du Udal honetako Gobernu Batzordeak.

Oinarri hauek eragindako edozein interpretazio zalantzaren aurrean, Udal honetako Gobernu Batzordeak erabakiko du.

ALHAOn iragarki taulan, ZUIN informazio orrian eta Udaleko web orrialdean ([www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)) argitaratuko da deialdi hau.

Oinarri hauek indarra hartuko dute, euren testua ALHAOn oso-osorik argitaratuta azaldu ostean eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 65.2 artikuluan ezarritako epea igarota dagoenean.

Laudio, 2016ko ekainaren 24a. Alkatea, JON IÑAKI URKIXO ORUETA